Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko uztailaren 17a, ostirala — 135 — Viernes, a 17 de julio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ASTIGARRAGAKO UDALA

*Iragarkia*

Astigarragako Tokiko Gobernu batzarrak –774/2019 Dekretuaren bidez alkateak eskuordetuta– 2020ko uztailaren 7ko bileran ebatzi du Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren eraginez zaintza lanen partekatze erantzunkide baten alde haurrentzako zaintza-zerbitzuaren gastuentzako dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak ontzat ematea eta laguntzen deialdi publikoa egitea.

*1. oinarria. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da, lehia askeko erregimenean, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren eraginez, 2020ko ekainaren 1etik abenduaren 31ra, 0-4 urte bitarteko haurren zaintza gastua ordaintzeko –bai norbanako zaintzaileen kontratazioarenak, bai bestelako zaintza kooperatibenak– dirulagutzen deialdia arautzea. Dirulaguntza hau Covid-19 osasun-krisiaren ondorioz sortutako laneko, arlo pertsonaleko eta familiako zaintza erantzunkiderako behar berriei erantzuteko dirulaguntzen lerroaren barruan sartzen da.

Dirulaguntza bateragarria izango da, xede bereko beste administrazio edo erakundeen eman dezaketenarekin, baina inola ere ez du gainfinantzaketarik ekarriko.

*2. oinarria. Onuradunak.*

0-4 urte bitarteko haurren bat haien kargura duten Astigarragan erroldatutako pertsona fisikoak, eta, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren eraginez, horien zaintzarako 2020ko ekainaren 1etik abenduaren 31ra zaintza-zerbitzua kontratatzen dutenak; horretarako kontratatutako langileei legeak eskatzen duen lan-kontratua egin eta Gizarte Segurantzan alta eman badiete, edo zerbitzua zaintza kooperatiben bidez hartuz gero, dagokion zerbitzu-kontratua sinatu badute.

*3. oinarria. Laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.*

— Astigarragan erroldatuta egotea.

— Dirulaguntza jasotzeko onuradun izatea, hau da, 0-4 urte bitarteko haur bat izatea, eta Covid-19ak eraginda, horientzat zaintza-zerbitzua kontratatzea, 2020ko uztaila, abuztua edota irailerako.

— Zerbitzua kontratatzeko indarrean dagoen legediari jarraikiz, lan-kontratu bat egitea.

— Norbanako langilea kontratatu bada, kontratatu den langilea Gizarte Segurantzan altan emana edukitzea eta bere ordainketak egunean izatea.

— Eskatzaileek –titularrak nahiz bizikideak– Astigarragako Udalarekin zerga, tasa edota isunen ordainketa egunean izatea (ofizioz egiaztatuko dena), baita gainerako zerga-betebeharrak ere.

— Familia-unitatearen 2019. urteko errenta 35.000 € baino gutxiagokoa izatea (Zerga Oinarri Orokorra eta Aurrezpenaren Zerga Oinarria batuta).

## AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local de Astigarraga, por delegación del Alcalde, mediante el Decreto 774/2019, ha resuelto en su reunión celebrada el día 7 de julio de 2020 aprobar las bases específicas y la convocatoria pública de ayudas para la concesión de subvenciones para gastos de servicio de cuidado infantil consecuencia de la crisis sanitaria provocada por el Covid-19 a favor de una conciliación corresponsable de las tareas de cuidado.

*1. base. Objeto.*

Las presentes bases tienen por objeto regular, en régimen de libre competencia, la convocatoria, entre el 1 de junio y el 31 de diciembre de 2020, de subvenciones para sufragar el gasto de cuidados a niños y niñas de 0 a 4 años, tanto de contratación de personas cuidadoras individuales como de otras cooperativas de cuidado, como consecuencia de la crisis sanitaria generada por el Covid-19. Esta subvención se enmarca dentro de la línea de subvenciones para atender las nuevas necesidades de cuidado laboral, personal y familiar corresponsable derivadas de la crisis sanitaria Covid-19.

La subvención será compatible con la que puedan conceder otras administraciones o entidades de la misma finalidad, sin que en ningún caso suponga sobrefinanciación.

*2. base. Personas beneficiarias.*

Personas físicas empadronadas en Astigarraga con niños y niñas de 0 a 4 años a su cargo que, como consecuencia de la crisis sanitaria provocada por el Covid-19, contratan un servicio para su cuidado del 1 de junio al 31 de diciembre de 2020; el personal trabajador contratado al efecto que hayan formalizado el contrato de trabajo legalmente exigido y dado de alta en la Seguridad Social, o que hayan suscrito el correspondiente contrato de servicios si el servicio se presta a través de cooperativas de cuidado.

*3. base. Condiciones para poder solicitar la subvención.*

— Estar empadronada o empadronado en Astigarraga.

— Ser beneficiario/a de la subvención, es decir, tener un/a niño/a de 0 a 4 años, y por motivo del Covid-19, contratar un servicio de cuidado para ellos/as en los meses de julio, agosto y/o septiembre de 2020.

— Formalizar un contrato de trabajo de acuerdo con la legislación vigente para la contratación del servicio.

— En caso de contratación de una persona trabajadora individual, que la persona contratada se encuentre dada de alta en la Seguridad Social y al corriente de sus pagos.

— Que las personas solicitantes, tanto titulares como convivientes, estén al corriente del pago de impuestos, tasas y/o multas con el Ayuntamiento de Astigarraga, que se verificará de oficio, así como del resto de obligaciones tributarias.

— Que la renta de la unidad familiar en el año 2019 sea inferior a 35.000 € (la suma de la Base Imponible General y la Base Imponible de Ahorro).

EK\CV GAO-I-2020-03404

— Ohiko etxebizitzaz gain, beste bat ez edukitzea, ez bada herentziaz edo dohaintzaren bitarteko % 50etik beherako titulartasuna duela, eta beste titular baten ohiko etxebizitza dela.

— Etxebizitza ez den, ezta enpresaburuen edo autonomoen kasuan negozioaren zerga-egoitza ere, 150.000 eurotik gorako ondare higigarri eta/edo higiezinen titular ez izatea.

— Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen dituen betebehar guztiak betetzea, eta laguntza ekonomikoen onuradun izateko aurreikusitako ezein kasutan ez egotea (laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea, borondatezko konkurtsoaren deklarazioa ez eskatu izana, administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin ez izana, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea, edo ebazpen irmo baten bidez dirulaguntzak lortzeko aukera galdu ez izana).

— 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea.

*4. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz laguntzekoak diren gastuak.*

Dirulaguntza horiek 11000.480.01.230.00 2020 kontu sailaren kargura emango dira. Horretarako, kontu-sail horretan 25.000 euro aurreikusi dira.

Zenbateko hori agortuz gero, alkateak hori handitzeko erabakia har dezake, Covid-19aren udal planak eta laguntzen udal plan estrategikoak horretarako aukera ematen badute.

Bizikidetza unitate bakoitzak, oro har, kontratazio-gastuaren % 50a jasoko du, gehienez ere 500 €ko laguntza arte hileko. Ehuneko eta kopuru hori, jarraian adierazitako egoeran dauden hartzaileei, gehikuntza hauek aplikatuko zaizkie (ehuneko bat baino gehiago aplikatu ahal izango da).

Guraso bakarreko familiek: % 10 gehiago.

Genero indarkeriaren biktima direnek: % 10 gehiago.

Familia-unitateko kideren batek % 33tik gorako urritasunen bat badu: % 10 gehiago.

DSBE jasotzen duten titularrak edo onuradunak, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonek: % 10 gehiago.

*5. oinarria. Eskariak aurkezteko epea eta tokia.*

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita eta kreditua agortu arte edo 2020ko azaroaren 15a bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Eskaerak telematikoki (udalaren egoitza elektronikoaren bidez –http://astigarraga.eus/eu/tramiteak– edo Astigarragako udaletxeko erregistroan aurkeztu daitezke, baita Herri-administrazioen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 oinarriak aipatzen dituen lekuetan ere.

*6. oinarria. Aurkeztu beharreko dokumentuak.*

— Eskaera orri orokorra.

— Dirulaguntza helbideratuko den kontu-zenbakia, eskatzailearen titulartasuna egiaztatzen duen agiriarekin.

— Familia liburuaren kopia.

— Lan-kontratuaren kopia eta, horrela badagokio, ordainsaria edo ordainsariak ordaindu izanaren justifikazioa. Kontratu hori zaintza kooperatiba baten bitartez egin bada, zerbitzu hori kontratatu izanaren faktura edo bazkidetza kuotak ordaindu izanaren egiaztagiria.

— No disponer de otra vivienda distinta a la habitual, salvo que ostente una titularidad hereditaria o intermedia inferior al 50 % y sea vivienda habitual de otra persona titular.

— Que no sea titular de un patrimonio mobiliario y/o inmobiliario superior a 150.000 euros, ni del domicilio fiscal del negocio en el caso de empresarios/as o autónomos/as.

— Cumplir todas las obligaciones establecidas en la Ley 38/2003 General de Subvenciones y no encontrarse en ninguno de los supuestos previstos para ser persona beneficiaria de ayudas económicas (no haber sido condenada o condenado mediante sentencia firme a la pérdida de la posibilidad de obtener ayudas públicas, no haber solicitado la declaración de concurso voluntario, no haber dado lugar a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración, no hallarse al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, o no haber perdido la posibilidad de obtener subvenciones mediante resolución firme).

— Cumplir los principios generales recogidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*4. base. Importe de la subvención y gastos subvencionables.*

Estas subvenciones se concederán con cargo a la partida 11000.480.01.230.00 2020. Para ello, en esta partida se han previsto 25.000 euros.

En caso de agotarse dicha cuantía, el Alcalde podrá acordar su ampliación, siempre que el Plan Municipal de Covid-19 y el Plan Estratégico Municipal de ayudas lo permitan.

Cada unidad convivencial recibirá, con carácter general, el 50 % del gasto de contratación hasta un máximo de 500 €/mes. Dicho porcentaje y cantidad, a los perceptores que se encuentren en la siguiente situación, se les aplicarán los siguientes incrementos (se podrá aplicar más de un porcentaje).

Familias monoparentales: un 10 % más.

Víctimas de violencia de género: un 10 % más.

En el caso de discapacidad superior al 33 % de alguna persona del núcleo familiar: un 10 % más.

Titulares o beneficiarios de RGI, personas en riesgo de exclusión social: un 10 % más.

*5. base. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes previstas en la presente convocatoria podrán presentarse desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el agotamiento del crédito o hasta el 15 de noviembre de 2020.

Las solicitudes se pueden presentar telemáticamente (a través de la sede electrónica del Ayuntamiento –http://astigarraga.eus/es/tramites– o en el registro del Ayuntamiento de Astigarraga, así como en los lugares a los que se refiere la base 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

*6. base. Documentación a presentar.*

— Instancia general.

— Número de cuenta en la que se domiciliará la subvención, con documento acreditativo de la titularidad de la persona solicitante.

— Fotocopia del libro de familia.

— Copia del contrato de trabajo y, en su caso, justificación del pago de la retribución o retribuciones. Si el contrato se ha realizado a través de una cooperativa de cuidado, la factura de la contratación de dicho servicio o justificante del pago de las cuotas de ser socia o socio.

EK\CV GAO-I-2020-03404

— Kontratatu den langilea Gizarte Segurantzan altan eman izanaren ziurtagiriaren kopia. Eta kontratuak hilabete bat egina badu, ordainketak egunean edukitzearena ere.

— Xede bererako bestelako laguntzarik jaso izanaren inguruko aitorpena.

— Dirulaguntza jaso ezin izateko hirugarren oinarrian jasotzen diren egoeretako batean ez egotearen zinpeko aitorpena.

— Eskatzaileen –titularraren nahiz bizikidearen– informazio fiskala (Aldundiko ogasunean telefonoz eskatuta, egun batzuetan etxean jaso daiteke).

Udalak ofizioak egiaztatuko ditu Astigarragan erroldatuta egotea eta elkarbizitza, udal-zergak egunean izatea, mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasua edota DBSE jasotzea; baina horretarako, eskatzaileak eskabide-orrian horretarako baimena eman beharko du, eman ezean, ez dira alderdi horiek kontuan hartuko eta, horrela badagokio, laguntza ukatuko da.

Astigarragako Udalak aukera izango du adierazitako agiriaz gain, eskatutako betekizunak justifikatzeko egokitzat jotzen dituen agiri gehigarri guztiak eskatzeko.

*7. oinarria. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.*

1. Berdintasuna, Elkarbizitza eta Parte-hartze saila arduratuko da eskaera izapidetu, baloratu eta ebazpen proposamena egiteaz.

Horrek ofizioz burutuko ditu ebazpen proposamena egiteko aintzat hartu behar diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatzeko bidezkotzat jotzen dituen jarduera guztiak; eta eskaerak aztertu eta baloratu ondoren, ebazpen-proposamena alkatetzara helaraziko du.

Dirulaguntzak alkatearen dekretu bidez ebatziko dira.

2. Eskaerak ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegi dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio isiltasunez ezetsitzat jotzea.

3. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria edo jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da, bai deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei dagokienez, bai gainerako baldintza edo alderdi guztiei dagokienez.

*8. oinarria. Onuradunaren betebeharrak.*

— Zergarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eramatea.

— Zerbitzu-kontratuaren edota kontratatutako langilearen ordainsariak egunean eramatea.

— Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea Astigarragako Udalari.

— Astigarragako Udalak egin ditzakeen finantza kontrol eta egiaztapen jarduerak onartzea.

— Xede bererako beste laguntzaren bat jaso badu, horren berri Udalari ematea, ebazpena jaso eta 7 laneguneko epean.

*9. oinarria. Ordainketa eta justifikazio modua.*

Dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da:

— Dirulaguntzaren % 70a dirulaguntza ematen den momentuan ordainduko da.

— Gainontzeko % 30a, dirulaguntza justifikatu ondoren, 2021eko urtarrilaren 15a baino lehenago egin beharko duena.

— Copia del certificado de alta en la Seguridad Social de la persona trabajadora contratada. Y si tiene un mes de contrato, también de estar al corriente de pagos.

— Declaración de haber recibido otras ayudas para el mismo fin.

— Declaración jurada de no encontrarse en alguna de las circunstancias recogidas en la Base Tercera para poder acceder a la subvención.

— Información fiscal de las personas solicitantes, tanto titular como conviviente (solicitada telefónicamente en la Hacienda de la Diputación, se puede recoger en el domicilio en unos días).

El Ayuntamiento comprobará de oficio el empadronamiento y la convivencia en Astigarraga, estar al corriente de los impuestos municipales, y en el caso de personas en situación de dependencia o recibir la RGI; pero para ello, la persona solicitante deberá dar su consentimiento en el impreso de solicitud, en caso contrario, no se tendrán en cuenta estos aspectos y, en su caso, se denegará la ayuda.

El Ayuntamiento de Astigarraga podrá solicitar, además de la documentación indicada, cuantos documentos adicionales considere oportunos para la justificación de los requisitos exigidos.

*7. base. Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.*

1. El Departamento de Igualdad, Convivencia y Participación será el encargado de tramitar la solicitud, valorarla y elaborar la propuesta de resolución.

Éste realizará de oficio cuantas actuaciones estime oportunas para determinar, conocer y verificar los datos que han de ser tenidos en cuenta para elaborar la propuesta de resolución; y una vez analizadas y valoradas las solicitudes, elevará la propuesta de resolución a alcaldía.

Las subvenciones se resolverán por Decreto del Alcalde.

2. El plazo máximo para resolver las solicitudes será de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución alguna, las personas interesadas podrán entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión.

3. Si en el plazo de 15 días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, no se renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en los términos económicos que se establezcan en la convocatoria como en la resolución, como en todos los demás requisitos o aspectos.

*8. base. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

— Estar al corriente de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

— Llevar al día las retribuciones del contrato de servicios o de la persona trabajadora contratada.

— Comunicar al Ayuntamiento de Astigarraga cualquier modificación, tanto objetiva como subjetiva, relacionada con la concesión de la subvención.

— Aprobar las actuaciones de control y comprobación financiera que pueda realizar el Ayuntamiento de Astigarraga.

— Comunicar al Ayuntamiento la obtención de otras ayudas para la misma finalidad, en el plazo de 7 días hábiles desde la recepción de la resolución.

*9. base. Forma de pago y justificación.*

El pago de la subvención se realizará en dos pagos:

— El 70 % de la subvención se abonará en el momento de la concesión.

— El 30 % restante, previa justificación de la subvención, que deberá realizarse antes del 15 de enero de 2021.

EK\CV GAO-I-2020-03404

Dirulaguntza zuritzeko dokumentu hauek ekarri beharko dira, ez bada eskaerarekin batera aurkeztu direla:

— Etxeko langileari edo kooperatibari ordainsariak ordaindu izanaren egiaztagiriak, ordainketa horiek gutxienez bete beharko dute zaintza eremuari dagokion lan-hitzarmena.

— Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzearen frogagiriak.

— Xede bererako beste laguntzaren bat jaso bada, horren ebazpena.

*10. oinarria. Ez betetzea eta dirua itzultzea.*

1. Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, deialdi honetan ezarritako eskakizunak, aplika daitezkeen gainontzeko arauak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedientea ireki, eta dirulaguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera.

Beste administrazio edo erakunde batek xede bererako beste dirulaguntzaren bat onartuz gero, eta Astigarragako Udalari horren berri ez ematea edo beste laguntza horren onarpen-ebazpena ez aurkeztea, dirulaguntza honen baldintzak ez betetzetzat hartuko da.

Ez betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta hala dagokionean, emandako dirulaguntza aldez edo osorik itzularazteko ebazpenak, laguntza onartu duen organoak du, hau da, alkateak.

2. Justifikatutako zenbatekoa emandako dirulaguntza baino txikiagoa bada, dirulaguntza doituko da, eta, hala badagokio, 38/2003 Dirulaguntzen araudiak aurreikusten duen itzulera prozedura abiaraziko da.

Halaber, beste administrazio edo erakunde batek onartutako dirulaguntzaren ondorioz gainfinantzaketarik balego, laguntza osoa edo dagokion zatia itzultzeko prozedura martxan jarriko da.

*11. oinarria. Azken xedapenak.*

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie Udalak kudeatzen dituen dirulaguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza eskaerek Astigarragako Udala ahalbidetzen dute beharrezkoa duen informazioa eskatzera, baldintzen betetzea eta mantentzea bermatzeko, bai beste administrazio edo erakunde publikoei, bai dagokion entitateei.

Oinarrien interpretazioan sortu daitezkeen zalantzen aurrean, Astigarragako Udaleko Berdintasun eta Parte-hartze batzorde informatzaileak hartuko du erabakia.

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta haren garapenerako araudien arabera ere arautuko dira. Eta horien osagarri, administrazio zuzenbideko gainerako legeak aplikatuko dira, edo horiek izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

Astigarraga, 2020ko uztailaren 7a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (3404)

La documentación justificativa de la subvención, salvo que se acompañe a la solicitud, será la siguiente:

— Justificantes de pago de retribuciones a la persona empleada de hogar o cooperativa, que deberán cumplir como mínimo el convenio laboral correspondiente al convenio para personas trabajadoras del hogar.

— Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

— Resolución de otras ayudas para la misma finalidad.

*10. base. Incumplimiento y devolución del dinero.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Reglamento de Subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, el incumplimiento de los requisitos establecidos en la presente convocatoria, demás normas aplicables o los establecidos en la resolución de concesión de la subvención, dará lugar a la incoación de expediente de incumplimiento y a la revocación y reintegro de las subvenciones, así como a la devolución de los intereses legales.

La aceptación por parte de otra Administración o entidad de cualquier otra subvención para el mismo fin, así como la no comunicación al Ayuntamiento de Astigarraga o la presentación de la resolución de concesión de esta última ayuda, se entenderá como incumplimiento de las condiciones de la presente subvención.

La competencia para la incoación y resolución de los expedientes de incumplimiento, así como, en su caso, la resolución de reintegro total o parcial de la subvención concedida, corresponde al órgano que ha aprobado la ayuda, que es el Alcalde.

2. En el caso de que el importe justificado fuera inferior a la subvención concedida, se procederá a ajustar la subvención y, en su caso, a iniciar el procedimiento de reintegro previsto en la normativa de subvenciones 38/2003.

Asimismo, si como consecuencia de la subvención concedida por otra administración o entidad se produjera sobrefinanciación, se iniciará el procedimiento de reintegro total o parcial de la ayuda.

*11. base. Disposiciones finales.*

Estas ayudas tienen carácter administrativo, correspondiendo a los tribunales administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Las solicitudes de subvención reguladas en estas bases permiten al Ayuntamiento de Astigarraga solicitar la información necesaria para garantizar el cumplimiento y mantenimiento de los requisitos, tanto a otras administraciones o entidades públicas como a las entidades correspondientes.

Ante las dudas que puedan surgir en la interpretación de las bases, la comisión informativa de Igualdad y Participación del Ayuntamiento de Astigarraga tomará la decisión.

En todo lo no previsto o contemplado en las presentes bases se regirán también por el Reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y sus normativas de desarrollo. Y supletoriamente se aplicarán las demás leyes de derecho administrativo o, en su defecto, las de derecho privado.

Astigarraga, a 7 de julio de 2020.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (3404)

EK\CV GAO-I-2020-03404